



Jose Ramon Ahetxe Plaza, 11
48940 LEIOA (Bizkaia)
tel. 94 607 25 70
faxa 94 607 25 71

infokultur@leioa.net
www.kulturleioa.com



KULTUR LEIOAKO AUDITORIUMA ETA AMBIGUA ERABILTZEKO ARAUDIA

Auditoriuma eta Ambigu Kultur Leioako bi gune eszeniko dira, non Kultura eta Gazteria Arloak arte eszenikoetako programa, musika eta gaurko zinema eskaintzen dituen. Programa askotarikoa, profesionala eta kalitatezkoa da, Leioako herritarrentzat erreferente kulturala dena eta erakusketa (arreta berezia emanez euskaraz egindako antzerkiari, kaleko arteei eta zirkuari, eta beti "esperientziari" lotuta sorkuntzarako eta publikoak fidelizatzeko motorra bezala) prestakuntza eta lan-sare formal eta informaletan lankidetzaren aldeko apustuaren emaitza da.

Gainera, gune biak herriko kultur eragile desberdinen eta, orkorrean, herritarren topaguneak dira, eta horregatik erakunde publiko eta pribatuek antolatutako jarduerak (gehienbat kulturalak) egitera irekita daude.

KULTUR LEIOAKO AUDITORIUMA erabiltzerakoan, hurrengo arau hauek bete beharko dira:

- Kultur ekipamendu hau erabiltzeko baimenak baliogabetu ahal izango dira, eta ez da kalte-ordainik jasotzeko eskubiderik izango, behar bezala arrazoitutako bat-bateko inguruabarrek edo interes publikoa babesteak hala eskatzen badute. Interesatuak beharrezko dokumentuak bete beharko ditu eta, Udalak onetsitako fidantza edota tarifa ordaindu, hala badagokio.
- Kultur Leioako Auditoriuma erabiliko dutenek udal-arduradunek edo bertako arduradunek esandakoa bete beharko dute. Halaber, erabil daitezkeen espazio edo materialez modu egokian eta beharrezko xederako baliatuko dira erabiltzaileak, ondasun eta pertsonen eragin liezazkieketen kalteen erantzuleak izanik.
- Kultur Leioako Auditoriuma eta bertako materialak txarto edo modu okerrean erabiltzearen ondorioz gerta litezkeen kalteak, ezin izango zaizkio Leioako Udalari egotzi eta ezin izango zaio berari ordaintzeko eskatu, ez bada jarduerak zuzentzeko ardura duten langileen errua edo arduragabekeria izan behintzat (halako langilerik izanez gero), edo ez badago kausazko erlaziorik kalteen eta materialaren zein instalazioen egoera txarraren artean.
- Auditoriumeko arduradunen aginduak hautsiko edo beteko ez lituzketen lagunei, edo zerbitzua, lokala eta bertako materiala antolatutako jardueren xederako erabiliko ez luketenei, edo lokalean, instalazioetan edo bertako osagaien batean kalteak eragingo lituzketenei, oro har, zigorra ezarriko zaie aplikatu beharreko araudia aintzat hartuta. Zigorra ezartzerakoan kalteak nahitakoak izan diren kontuan hartuko da baita hutsegitea larria edo arina izan den eta kaltearen zenbatekoa ere. Nolanahi ere, zigorrak ezarri aurretik interesatuari/interesatuei esan beharrekoa entzuteko aukera emango zaio/zaie, eta hala badagokio, ez du eragindako kalteak ordaindu beharretik salbu utziko.
- Debehatuta dago Auditoriumak dituen instalazioetatik aparteko beste elementurik jartzea Kultur Zuzendaritzari alde aurretik horren berri eman barik eta hark elementua jartzea baimendu barik. Halaber, elementu horiek jartzeak ez du inoiz eraginik izango areto horretan normalean edo noizean behin egiten diren jardueretan; jarduerak ohiko moduan gauzatzen jarraitu beharko dira.
- Auditoriumera ezin izango da txakurrik edo bestelako animaliarik sartu. Era berean, debehatuta egongo da bertan erretzea, eta edariak edo janaria sartzea.



Jose Ramon Ahetxe Plaza, 11
48940 LEIOA (Bizkaia)
tel. 94 607 25 70
faxa 94 607 25 71

infokultur@leioa.net
www.kulturleioa.com



- Leioako Udala izango da Kultur Leioako Auditoriumeko arduraduna, eta Udalak, beharrezkotzat jotzen duenean, erantzukizun hori Kultur Sailaren esku utziko du. Baina, eta unean uneko jardueraren arabera, antolatzailea izango den/diren lagun/lagunei, elkarteari edo erakundeari dagokio jarduera horren eta Auditoriumaren erantzukizuna.

- Eskaera orria sinatu duen pertsona, edo bere kasuan, pertsona horrek ordezkatzeko duen Erakundea eta unean-unean Auditoriuma erabiltzen egongo dena, bertan burutuko den jardueraren erantzule egiten da. Hark, halaber, instalazioak garbi eta egoera onean mantentzeko konpromisoa hartzen du, baita higiezinari kalte egin diezaiokkeen istilurik edo ekintzarik, oro har, gertatuko ez dela hitzematzen ere.

KULTUR LEIOAKO AUDITORIUMA ETA AMBIGUA ERABILTZEKO TARIFAK

Erakunde publiko nahiz pribatuek antolatzen dituzten saio zinematografiko edo bideo-emanaldiak, hitzaldiak, dantza nahiz musika emanaldiak eta antzezlanak.

AUDITORIUM

- Egun osorako alokatzea:
 - Astelehen, astearte, asteazkenetan: **1.224€**
 - Ostegun eta ostiraletan: **1.428€**
 - Larunbat, igande eta jai egunetan: **1.632€**
- Egun erdirako alokatzea goizez (8.00-14.00h):
 - Astelehen, astearte, asteazkenetan: **612€**
 - Ostegun eta ostiraletan: **816€**
 - Larunbat, igande eta jai egunetan: **1.020€**
- Egun erdirako alokatzea arratsaldean (17.00-21.00h):
 - Astelehen, astearte, asteazkenetan: **816€**
 - Ostegun eta ostiraletan: **1.020€**
 - Larunbat, igande eta jai egunetan: **1.224€**

AMBIGÚ

- Egun osorako alokatzea:
 - Astelehen, astearte, asteazkenetan: **816€**
 - Ostegun eta ostiraletan: **1.020€**
 - Larunbat, igande eta jai egunetan: **1.224€**

- Egun erdirako alokatzea goizez (8.00-14.00h):
 - Astelehen, astearte, asteazkenetan: **204€**
 - Ostegun eta ostiraletan: **408€**
 - Larunbat, igande eta jai egunetan: **612€**
- Egun erdirako alokatzea arratsaldez (17.00-21.00h):
 - Astelehen, astearte, asteazkenetan: **408€**
 - Ostegun eta ostiraletan: **612€**
 - Larunbat, igande eta jai egunetan: **816€**

AUDITORIUM ETA AMBIGÚ

- Egun osorako alokatzea:
 - Astelehen, astearte, asteazkenetan: **1.224€**
 - Ostegun eta ostiraletan: **1.428€**
 - Larunbat, igande eta jai egunetan: **1.632€**
- Egun erdirako alokatzea goizez (8.00-14.00h):
 - Astelehen, astearte, asteazkenetan: **816€**
 - Ostegun eta ostiraletan: **1.020€**
 - Larunbat, igande eta jai egunetan: **1.224€**
- Egun erdirako alokatzea arratsaldez (17.00-21.00h):
 - Astelehen, astearte, asteazkenetan: **1.020€**
 - Ostegun eta ostiraletan: **1.224€**
 - Larunbat, igande eta jai egunetan: **1.428€**

Onuradunak:

- Leioako elkarteak (1). Urtean doako erabilera bat. Bigarren erabileratik aurrera, %50eko deskontua.
- Leioako enpresak: %25eko deskontua. Bigarren erabileratik aurrera %50eko deskontua.
- Beste udalerrri batzuetako elkarte eta enpresak: oinarritzko prezioa.

(1) Elkarte lagapen-hartzaileak, auzo-elkarteak izan daitezke, eskoletako gurasoak, kultura elkarteak, kirol-elkarteak, aisialdikoak, gazte-elkarteak, sindikatu-elkarteak, enpresa-elkarteak, lanbide-elkarteak, 1/2002 Lege Organikoak, Elkartzeko Eskubidea Arautzekoak eta 7/2007 Legeak, Euskadiko Elkartei buruzkoak aurreikusten dituzten bestelakoak, interes publikokoak eta irabazi asmorik gabekoak, Leioaren onerako lan egitea helburu dutenak.

Gaueko ekitaldiak (23:00etatik aurrera): %20ko erretegia

Aparteko orduak edo frakzioak: erretegia, erabileraren arabera

Muntatu eta desmuntatzeko eguna: alokaturiko aretoaren prezioaren gaineko %30eko beherapena (egun bat)



Jose Ramon Ahetxe Plaza, 11
48940 LEIOA (Bizkaia)
tel. 94 607 25 70
faxes 94 607 25 71

infokultur@leioa.net
www.kulturleioa.com

Aretoa alokatzeak honakoak barne hartzen ditu:

- Argiztapen orokorra
- Klimatizazioa
- Oinarrizko megafonia
- Ohiko garbiketa

Ez dira barne sartzen ez langilerik ezta ikus-entzunezko baliabiderik.

Bestelako zerbitzuak (aretozainak eta jarlekuzainak, txartel-leihatilako langileak, muntaiak eta zamalanak egiteko langileak; teknikariak; proiektzio, soinu eta argi ekipamenduak, eta abar.): Banakako aurrekontua.

Zerbitzu osagarriak: Langileak eta material teknikoa

Langileen zerbitzu edo zerbitzu tekniko ezberdinak, aretoaren erreserba orokorra burutuko den momentuan bertan erreserbatuko dira, eta beharizanak banan-banan eta horien zenbatekoa jasota argi eta garbi geratuko da.

Langileen zerbitzu osagarriaren balioa

- Txartel-leihatila	21,42 € /pertsona/ordua
- Jarlekuzaintza	21,42 € /pertsona/ordua
- Zamalanak	21,42 € /pertsona/ordua
- Argiztapen eta soinu teknikaria	26,52 € /pertsona/ordua
- Segurtasun-jagoleak	21'42 € /pertsona/ordua
- Aparteko garbiketa-lanak	334,56 €

Material teknikoaren zerbitzu osagarriaren balioa

Material teknikoaren balioa ezberdina izango da Kultur Leioak beroriek baldin baditu edo jarduera jakin bat gauzatzeko horiek alokatu behar badira kontuan hartuta. Kultur eta Gazteria Sailak material hori ez badauka, berori alokatzeak merkatuan duen kostua ordainduko da.

Beharrezko material teknikoa edukiz gero, 100,00 € ordainduko dira material hori erabiltzeagatik.

BILTEGIA: 7,34 euro/m² eguneko

* Leioako Udaleko Kultura eta Gazteria Sailak ekitaldi baten antolaketan parte hartzen duenean, karga ekonomikoa elkar banatzerakoan aintzat hartuko dira alderdiek ondore horretarako erabakitako baldintzak eta alde aurretik Alkatetzak horri buruzko erabakia hartuko du beren beregi, Kultur, Kirol eta Gazteria Batzordearen irizpena – egiteko astirik baldin badago- aztertu eta gero.

Tarifaren ordainketa.

Tarifa ordaintzeari dagokionez, honako arau hauek aintzat hartuko dira:

- a) Ordainketa egiteko betebeharra instalazioen eskatzaileari dagokio.
- b) Dagokion diru-kopurua ekitaldia hasi baino 48 ordu lehenago, gutxienez, ordaindu beharko da.
- c) Derrigorrezkoa izango da Kultur Leioako instalazioak erabiltzeko baldintza orokorrak eta ordaindu beharreko kopuruaren ordainketa onartzeko agiria sinatzea.
- d) Erreserbak bertan behera utzi nahi izanez gero, behar bezala justifikatutako eta Kultura Zuzendaritzak libreki baloratutako arrazoiak baino ez dira onartuko. Horretarako arrazoiak idatziz eman beharko dira, onarpena lortze aldera, eta betiere, jarduera egingo litzatekeen eguna baino 8 egun lehenago gutxienez.
- e) Kultura eta Gazteria Saileko zuzendaritzaren irizpideari jarraituz, bidezkotzat jotzen denean, zerbitzua segurtasun pertsonalarekin indartuko da, zerbitzutik eratorritako kostuak antolatzailearen kontura izango dira, eta zerbitzuaren iraupena kontratatutako jardueraren garapen egokirako beharrezko denborara mugatuko da.
- f) Jarduera artistikoren bat edo, jabetza intelektualarekin harremana duen jardueraren bat, oro har, burutzekotan, antolatzaileak beharrezko likidazioa gauzatu beharko du SGAE egile eta argitaratzaileen elkartearekin. Kasu horretan antolatzaileak aretoan egin nahi duen ekitaldiaren argazkia, txosten laburra eta CD edo DVDa –halakorik dagoenean- utziko dizkio udalari eta Kultur Leioari, material hori beren argitalpenetan erabili ahal izan dezaten.
- g) Sarrerak alde z aurretik saltzekotan, Kultur Leioa salmenta-guneetako bat izango da derrigor. Salmenta-zerbitzua alderdiek alde z aurretik adostutako ordutegian eta baldintzetan eskainiko da.

Muntaia eta desmuntaia, gauekotasun eta sarreren prezioa:

- Gauekotasuna: 22:00etatik aurrera, gainordaina 150€/ordu izango da.
- Muntaia eta desmuntaia egiteko denbora (alokairua ez den beste egun batean edo alokairuaren ordutegitik kanpo): gainordaina 100€/ordu izango da.
- Beharrezkoa bada, sarrerako gutxieneko prezioa ezarri ahal izango da, laguntza-zerbitzuak ordaintzea ahalbidetzeko.